

2022an Euskal AEn % 9,8 hazi da merkataritza elektronikoko bidezko salmenten balioa, eta % 7,8 erosketen balioa

Merkataritza elektronikoko bidezko salmenten % 24,7 partikularrei zuzendutakoa da; 2022an, berriz, % 12 ingurukoa zen

Euskal AEn establezimenduak dituzten enpresek merkataritza elektronikoko bidez egindako salmentak % 9,8 handitu ziren 2022an, aurreko urtearen aldean, eta merkataritza elektronikoko bidezko erosketen kasuan, % 7,8 handitu ziren, Eustatek bildutako datuen arabera.

Datuak biltzen direnetik, erosketak nahiz salmentak etengabe hazi dira urtetik urtera, eta hazkunde berri horiekin, 2022an nabarmen gairitu da 26 mila milioi euroko muga salmenten kasuan, eta 19 mila milioi eurokoa erosketen kasuan.

Merkataritza elektronikoko bidezko salmentak egin zituzten establezimenduen salmenta guztien % 44,5, batez beste, salmenta elektronikokoak izan ziren. Erosketa elektronikokoak, berriz, enpresek 2022an egindako erosketa guztien % 37,2 izan ziren.

Euskal AEko establezimenduen % 28,7k, hau da, berrogeita bost mila establezimendu inguruk egiten dute merkataritza elektronikoa. Kopuru hori aurreko urtekoa baino ehuneko 0,7 puntu handiagoa da.

2022an, sarearen bidez edo beste sistema elektronikoko batzuen bidez —posta elektronikoa edo datu elektronikoen trukea (EDI eta beste sare batzuk)— sortutako negozio-bolumena 26.608,4 milioi eurokoa izan zen egindako salmenta elektronikoei dagokienez, eta 19.673,1 milioi eurokoa, egindako erosketei dagokienez.

Euskal AEko merkataritza elektronikokoaren bidezko erosketak eta salmentak, lurralde historikoaren eta enplegu-geruzaren arabera (milioi euro). 2021-2022

	Erosketak			Salmentak		
	2021	2022	%	2021	2022	%
Euskal AE	18.241,3	19.673,1	7,8	24.224,9	26.608,4	9,8
Araba/Álava	3.168,0	3.322,4	4,9	6.977,2	7.404,0	6,1
Bizkaia	9.469,1	10.108,1	6,7	9.209,4	10.227,0	11,0
Gipuzkoa	5.604,2	6.242,5	11,4	8.038,3	8.977,4	11,7
enplegu-geruza						
0 - 9	5.405,0	5.720,4	5,8	4.250,9	4.575,2	7,6
>=10	12.836,3	13.952,7	8,7	19.974,0	22.033,2	10,3

Data 2023ko Uztailaren 31a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizaratearen inkesta. Enpresak

Lurraldeei dagokienez, salmenta elektronikoetan Gipuzkoan (% 11,7) eta Bizkaian (% 11,0) izan den bi digitutatik gorako hazkundera nabarmentzen da. Arabako salmenta elektronikoen % 6,1eko hazkundera izan dute. Erosketa elektronikoetan, halaber, hiru lurraldeek zenbateko ekonomikoak hobetu dituzte, 2021ekoekin alderatuta. Gipuzkoa nabarmendu da berriz ere, % 11,4 hazi baita, Bizkaia % 6,7 eta Araba % 4,9.

Lurralde bakoitzak duen pisuari erreparatuta, ikus daiteke salmenta elektronikoen nahiko antzera banatzen direla hiru lurraldeen artean. Bizkaia Euskal AE osoaren % 38,4 hartzen du, eta Gipuzkoak eta Arabak % 33,7 eta % 27,8, hurrenez hurren. Erosketetan, ordea, parte-hartzea desberdinagoa da: Bizkaia hartzen du 2022an Euskal AEn egindako erosketa elektronikoen % 51,4; Gipuzkoak % 31,7, eta Arabak % 16,9.

Bestalde, establezimenduen tamainari erreparatuta, ikus daiteke 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan mugitzen dela merkataritza elektroniko bidezko diru kopururik handiena; salmenta elektronikoen % 82,8 eta erosketa elektroniko guztien % 70,9 hain zuzen ere.

Horrez gain, 2022an establezimenduen % 28,7k parte hartu zuen merkataritza elektronikoan, hau da, aurreko urtean baino 0,7 puntu gehiagok. Igoera hori erosketa elektronikoan (% 25,7) oinarritzen da —aurreko urtean baino ehuneko 0,7 puntu gehiago—, eta, hein txikiagoan, salmenta elektronikoen egiten dituztenetan (% 8,5) —ehuneko 0,2 puntu gehiago—.

Euskal AEn merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduak (%). 2001-2022

	2001	2005	2010	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Establezimenduak, guztira											
Salerosketa elektronikoa	3,0	10,5	15,1	26,4	26,0	25,1	26,3	27,1	26,9	28,0	28,7
Erosketak	2,7	9,6	14,2	23,9	24,0	23,0	24,1	24,7	24,0	25,0	25,7
Salmentak	0,4	1,9	3,9	6,5	6,5	6,8	6,9	7,0	7,6	8,3	8,5
erosketen gaineko (*)	9,6	15,5	28,1	31,3	33,3	36,2	36,4	38,4	40,2	38,3	37,2
salmenten gaineko (*)	9,9	24,6	38,6	36,8	35,1	41,4	40,6	43,7	46,6	44,0	44,5
10 langile edo gehiago											
Salerosketa elektronikoa	6,4	19,5	23,1	30,0	29,7	29,0	31,6	33,2	33,5	35,3	39,0
Erosketak	5,1	17,3	20,3	25,3	25,8	25,1	27,0	28,3	28,9	30,2	34,8
Salmentak	1,8	5,1	8,5	11,4	11,9	12,6	13,1	13,8	14,2	14,9	15,7
erosketen gaineko (*)	4,6	10,3	24,6	31,0	30,7	32,4	33,1	32,9	34,0	35,5	34,8
salmenten gaineko (*)	12,7	19,4	38,4	42,6	42,1	43,2	45,9	44,2	43,3	43,2	46,6

(*)Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa/salmenta elektronikoen batez besteko ehuneko guztizko salmenten aldean

Data 2023ko Uztailaren 31a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Era berean, egiaztatu ahal izan denez, bitarteko elektroniko bidez erosten duten establezimenduen kopurua salmentak bitarteko elektroniko bidez egiten dituztenen kopurua baino askoz handiagoa den arren, zenbateko ekonomikoetan salmenta elektronikoen (26.608,4 milioi euro) erosketa elektronikoen baino (19.673,1 milioi) handiagoak dira.


Zenbateko horiek aldatu egiten dira establezimenduen tamaina (enpleguari dagokionez) kontuan hartzen bada. 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduen % 39k egiten dute merkataritza elektronikoa, aurreko urtean baino ehuneko 3,7 puntu gehiago. Segmentu horretan, halaber, gehiago dira erosketa elektronikoen egiten dituztenak (% 34,8), eta gutxiago salmentak bide horietatik egiten dituztenak (% 15,7). Gehiago dira erosten dutenak (ehuneko 4,6 puntu) zein saltzen dutenak (ehuneko 0,8 puntu).

Erosketa elektronikoak egiteko erabili diren baliabideei dagokienez, zenbateko ekonomiko osoaren % 51,8 posta elektroniko bidez egin da (e-maila); % 24,4 EDIren eta beste sare batzuen bidez, eta gainerako % 23,8a web-orriaren bidez. Bestalde, salmenten zenbateko osoaren % 34,8 web-orrien, aplikazioen (app) edo Interneteko salmenta-atarien bidez egin da; % 25,0 posta elektroniko bidez, eta gainerako % 40,1 EDIren eta beste sare batzuen bidez.

Erosketa elektronikoak Euskadi AEko establezimenduetan, egiteko moduaren arabera. 2022



Ehunekoa




Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Aldi erabilgarriak 2022 ▼

Salmenta elektronikoak Euskadi AEko establezimenduetan, egiteko moduaren arabera. 2022



Ehunekoa



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak


Aldi erabilgarriak 2022 ▼

Kontsumitzaile partikularrak parte-hartze handiagoa du merkataritza elektronikoa: lau eurotik batek bezero mota hori du azken helburu

2022an, merkataritza elektronikoko salmentak bideratu diren bezero motari dagokionez, gehien-gehienek —baliabide elektroniko bidez fakturatutako zenbateko osoaren % 74,1— beste enpresa batzuek izan dituzte hartzaile (B2B izenekoa), % 24,7 kontsumitzaile partikularrei zuzendu zaie (B2C) eta gainerako % 1,2a beste bezero mota batzuei, hala nola administrazio publikoei (B2G). Beste enpresa batzuei egindako salmentak nagusi izan arren, aditzera eman behar da kontsumitzaile partikularrei zuzendutakoek gora egin dutela. Izatez, 2000ko hamarkadaren hasieran bezero mota horri zegokion bide elektronikoetatik fakturatutako hamar eurotik bat, hoguei urte geroago lau eurotik bat da.

Salmenta elektronikoak Euskadi AEko establezimenduetan, xedearen arabera. 2022

Ehunekoak



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Aldi erabilgarriak 2022 ▼

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie estatistika hau egiten lagundu duten enpresa eta erakunde guztiei. 2023ko urtariletik apirilera bitartean bildu da informazioa.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62